

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN LANDA BIDEAK MANTENTZEKO LAGUNTZAK, 2017

NEKAZARITZA SAILA

XEDEA

Arabako Lurralde Historikoaren eremuan Arabako Foru Aldundiaren landa bideen erregistroan dauden landa bideak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzak "gauzazko laguntzak" modalitatearen bidez emateko oinarri arautzaileak ezartzea.

ONURADUNAK

Arabako Lurralde Historikoko bideen jabe izanik aurreko artikuluan aurreikusitako inbertsioak egiten dituzten eta zehapen edo itzulketa prozedura batean ez dauden udalak eta toki erakundeak.

LAGUNDUTAKO KONTZEPTUAK

Oinarri arautzaile hauetan xedatutako laguntzak landa bideak mantendu eta kontserbatzeko obrak egikaritzearen ondoriozko gastuak "gauzazko laguntzen" bidez finantzatzeko erabiliko dira.

EPEA

Diru-laguntzak eskatzeko epea hogeai egun naturalekoa izango da: **2017/08/01**

AGIRIAK

Gauzazko laguntzen eskaerak oinarri arautzaile honen eranskin gisa jasotako inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira. Horrekin batera, erakunde titularraren erabakiaren ziurtagiria aurkeztuko da; horren bidez, laguntza eskatzea onartu behar du eta obrak egikaritzeko lursailak eskuragarri daudela egiaztatu beharko da.

Bai laguntza eskatzeko inprimaki normalizatu bai aurkeztu beharreko dokumentazioa urteko deialdi bakoitzean aldatu ahalko dira.

Erakunde bakoitzak ezingo du eskaera bat baino gehiago aurkeztu deialdi batean. Bat baino gehiago aurkeztuz gero, denak deuseztatuko dira.

Laguntza eskaerak erakunde eskatzailearen titulartasunekoak diren eta mantentze eta kontserbazio lanak behar dituzten bide guztiak biltzen ditu, eta deialdi bakoitzean ezarritako hautaketa irizpideak aplikatutakoan ateratzen

direnak hautatuko dira.

Eskaeretan akatsak antzematen badira edo eskaerok osatu gabe badaude, organo bideratzaileak, hala badagokio, errekerimendua egingo die erakunde interesdunei, 10 egun balioduneko epean, jakinarazpena eman eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, konpon ditzaten. Era berean, adieraziko du hori egin ezean eskaeran atzera egin dutela ondorioztatuko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Eskaera aurkezteak esan nahiko du bai laguntzen oinarri arautzaileetan bai deialdian ezarritako betebeharrak eta konpromisoak onartzen direla.

ARAUDI ERREGULATZAILEA

Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2017 Foru dekretua, ekainaren 27koa, onartzen dituena Arabako landa bideak onik zaintzeko "Laguntzak gauzatan" eran ematen diren laguntzak arautzen dituzten oinarriak(2017/07/12ko ALHAO)